



EBAZPENA, 2020ko azaroaren 9koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduran kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu ziren)

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez (2020ko otsailaren 27ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak deialdia egin zen, baita aipatutako kidegoetako karrerako funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Aipatutako aginduaren 2.1.f) oinarriak ezartzen duenez, irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharra dago hautaketa-prozesuan parte hartzeko.

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko uztailaren 29ko Aginduaren (EHAA, 2020ko abuztuaren 17koa) lehenengo ebazpen-zatiaren a) idatz-zatiaren arabera, epeei eta denbora-erreferentziei buruzkoa, epe bat ireki zen (2020ko urriaren 21etik 30era arte, biak barne) irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizunaren egiaztatzea edo salbuetsita dagoela adierazten duen ziurtagiria aurkezteko (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan aurreikusia); hori horrela, aurkeztu beharreko kasuetan. Halaber, Hezkuntzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeagatik deialdiko emaitzak argitaratu dira.

6.2.6 oinarriarekin bat etorritik, eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez daukaten izangaiak, salbuetsita ez dauden izangaiak edo 2.1.f) oinarriak aurreikusi duen erregimen iragankorraren arabera egiaztatzeagatik salbuetsita ez daudenak, probara aurkeztu ez badira edo, aurkeztuz gero, «gai» kalifikazioa jasotzen ez badute, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira. Hori dela eta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduran kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2020ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez deitu ziren).

2. artikulua.- Ebazpen hau, bai eta behin-behineko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteari begira, Hezkuntza Saileko honako Interneteko helbideetan argitaratuko dira:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2020. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa. Sartzeko eta iristeko prozedurak» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) – «Emaitzak» – «Hizkuntza-eskakizuna».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> – «2020ko EPE. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa» – «Aurreko probak: gaztelania eta euskara» – «Irakasleen hizkuntza-eskakizuna ziurtatzea».

3. artikulua.- Ebazpen honen aurka, izangaiak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, bost laneguneko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.



Erreklamazioa aurkezteko Interneteko helbideetan ezarritako estekan egin daiteke, "Sarbidea erreklamazioa entregatzeko" atalean, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako bideak erabiliz; erreklamazioa Hezkuntzako Sailaren zuzendariari zuzenduko zaio.

Vitoria-Gasteiz, 200ko azaroaren 9a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.